

I. ERANSKINA

Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ZENBATESPEN OBJEKTIBOAREN ARAUBIDEKO ZEINU, INDIZE EDO MODULUAK

Ikus taula osoa

Jarduera: abeltzaintzakoa, haragitarako zerri azienda, haragitarako ardi-azienda, esnetarako behi-azienda eta hegazti-hazkuntza ustiatzekoa; eta nekazaritzakoa, patata lortzekoa

Etekin garbiaren indizea

0,115

Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan

0,215

Oharra: Hegazti-hazkuntzaren barrenean sartzen dira: oilasko, oilo, ahate, faisai, eper, galeper eta abarren produktuak (haragia nahiz arrautzak).

Ikus taula osoa

Jarduera: Basogintzakoa, batez besteko mozketak epea 30 urtetik gorakoa duena

Etekin garbiaren indizea

0,115

Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan

0,215

Oharra: adibide gisa, honako zuhaitz-espezie hauek sartzen dira: gaztainondoa, urkia, lizarra, astigarra, gereziondoa, haltza, intxaurrondoa, ler gorria (*P. sylvestris*), larizio pinua, izeia, Douglas izeia, zedroa,

Alepo pinua, pinu kanariarra, pinazi pinua, pinu pinastarra, nekosta, pagoa, haritza (Q. robur, Q. petraea), artea, artelatza eta gainerako quercusak.

Ikus taula osoa

Jarduera: nekazaritzakoa, azukre-erremolatxa lortzekoa; eta abeltzaintzakoa, haragitarako behi-azienda, haragitarako ahuntz-azienda, ugalketarako behi-azienda, behor-azienda eta untxi-hazkuntza ustiatzekoa

Etekin garbiaren indizea

0,130

Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan

0,230

Ikus taula osoa

Jarduera: nekazaritzakoa, "Nafarroa" jatorri deiturako ardotarako mahatsa lortzekoa, eta beste atal batzuetan espresuki aipatzen ez den ardotarako mahatsa lortzekoa.

Etekin garbiaren indizea

0,230

Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan

0,330

Ikus taula osoa

Jarduera: nekazaritzakoa, gizakiek jateko zerealak, lekadunak, onddoak eta melokotoia lortzekoa.

Etekin garbiaren indizea

0,230

Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan

0,330

Oharra: Adibide gisa honako hauek lortzekoak sartzen dira:

–Zerealak: zereal aledunak (garia, zekalea, garagarra, olo arrunta, artoa, basartoa, arroza, artatxikia, alpistea, eskaina, tritikalea, artobeltza, etab.).

–Lekadunak: lekale aledunak (babarruna, dilista, txitxirio, baba, ilarra, algarrobo-leka, zalkea, erua, aizkola, ailorbea, etab.).

Jarduera: Basogintzakoa, batez besteko mozketak epea 30 urtekoa edo laburragoa duena	
Etekin garbiaren indizea	0,230
Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan	0,330
Oharra: adibide gisa, honako zuhaitz-espezie hauek sartzen dira: eukalipto, makala, intsinis-pinua eta itsas-pinua.	

Jarduera: nekazaritzakoa, fruitu lehorrak, barazkiak eta olibondoaren produktuak lortzekoa; eta abeltzaintzakoa, ugalketarako zerri-azienda, esnetarako ardi-azienda, esnetarako ahutz-azienda eta erlezaintza ustiatzekoa	
Etekin garbiaren indizea	0,260
Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan	0,360
Oharra: Adibide gisa honako hauek lortzekoak sartzen dira: –Fruitu lehorrak: intxaurrondoa, hurritza, arbendolondoa, gaztainondoa eta bestelako fruta-arbolak. –Barazkiak: buru-aza, bruselaza, azalorea, bestelako azak, zerba, apioa, porrua, uraza, eskarola, ziazerba, zainzuria, endibia, kardua, beste barazki hostodunak, tomatea, orburua, luzokerra, ozpinetako luzokerra, alberjinia, piperra, kuia, kuiatxoa, hosto nahiz loreengatik laboratzen diren beste barazki batzuk, erremolatxa gorria, azenarioa, baratxuria, tipula, tipuleta, arbia, errefaua, sustrai, edota erraboil nahiz tuberkuluengatik laboratzen diren beste barazki batzuk, ilar berdea, leka, baba berdea, beste barazki lekadunak, angurria, meloia, marrubia, baratze-marrubia, eta landare hosto erorkorreko beste fruitu batzuk. –Olibondoaren produktuak: mahaiko oliba eta errotako oliba.	

Jarduera: Nekazaritzakoa, olio-landareak eta zitrikoak lortzekoa; eta abeltzaintzako jarduera batzuk, beste atal batzuetan espresuki sartu gabeak, baita basogintzako jarduera ere, erretxina lortzekoa

Etekin garbiaren indizea

0,290

Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan

0,390

Oharra: Adibide gisa honako hauek lortzekoak sartzen dira:

–Olio-landareak: ekilorea, soja, koltza eta arbi-hazia, kartamoa, akain-belarra, etab.

–Abeltzaintzako beste jarduera batzuk: larrugintzarako animaliak (bisoia, txintxila, etab.), etab.

Ikus taula osoa

Jarduera: Nekazaritzakoa, “Errioxa” jatorri-deiturako ardotarako mahatsa, sustraiak, tuberkuluak, bazka, zitrikoak ez diren frutak, tabakoa eta aurreko ataletan espresuki aipatzen ez diren nekazaritzako bestelako produktuak lortzekoa

Etekin garbiaren indizea

0,338

Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan

0,438

Oharra: Adibide gisa honako hauek lortzekoak sartzen dira:

–Bazka: jorrako bazka-landareak (bazka-arbia, bazka-erremolatxa, bazka-aza, bazka-kuia, bazka-azenarioa, etab.) eta beste bazka-landare batzuk (luzerna, neguko bazka-zereala, bazka-artoa, zalkea, astorkia, hirusta, llolobelarra, bazka-baba, suila eta beste batzuk).

–Zitrikoak ez diren frutak: mahaiko sagarra, sagardotako sagarra, udarea, irasagarra, mizpira, beste fruta pipitadun batzuk (mazpila, gurbea eta antzekoak), gerezia, ginga, arana, abrikota eta beste fruta hezurdun batzuk, pikua, granada, andere-mahatsa, mugurdia, beste fruta txiki batzuk eta baiak (andere-mahats beltza, martutza, maruga, etab.) eta kiwia.

–Nekazaritzako beste produktu batzuk: lupulua, txikoria, piperrautserako piperra, mintegiak, lore eta landare apaingarriak, etab.

Ikus taula osoa

Jarduera: Nekazaritzakoa, kotoia lortzekoa

Etekin garbiaren indizea	0,370
Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan	0,470

Ikus taula osoa

Jarduera: Nekazaritzakoa, ehun-landareak eta mahaiko mahatsa ekoiztera bideratua, nekazariak, abeltzainak eta basogintzako jardueren titularrek egindako zerbitzu osagarriak, eta hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak	
Etekin garbiaren indizea	0,386
Etekin garbiaren indizea produktuen eraldaketa, prestaketa eta manufaktura kasuetan	0,486
Oharra: Adibide gisara, ehun-landareak lortzearen atalean, honako hauek sartzen dira: –Lihoa, kalamua eta abar ekoiztea. Oharra: Adibide gisara, nekazariak, abeltzainak eta basogintzako jardueren titularrek egindako zerbitzu osagarrietan, honako hauek sartzen dira: –Landa turismoa, eskulangintza, ehiza, arrantza eta aisialdiko jarduerak, betiere nekazariak edo abeltzainak monitore, gidari edo aditu gisa parte hartzen badu, esaterako txangoak, mendi-ibilbia, ibilbide ekologikoak, etab., landetxeetako ostatu zerbitzuak izan ezik.	

Ikus taula osoa

Jarduera: Nekazari eta abeltzainak egindako bestelako lan eta zerbitzu osagarriak	
Etekin garbiaren indizea	0,230

Ikus taula osoa

Jarduera: Azienda hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak, hegaztiak izan ezik.	
Etekin garbiaren indizea	0,530

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUBIDE BEREZI ERRAZTUKO ZEINU, INDIZE EDO MODULUAK

Ikus taula osoa

Jarduera: Abeltzaintzakoa, hegazti hazkuntza eta haragitarako zerri aziendaren ustiapen intentsiboa

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0167

Ikus taula osoa

Jarduera: Abeltzaintzakoa, haragitarako behi aziendaren eta untxi hazkuntzaren ustiapen intentsiboa

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0335

Ikus taula osoa

Jarduera: Abeltzaintzakoa, hazteko zerri aziendaren eta hazteko behi aziendaren ustiapen intentsiboa, bai eta gainerako ataletan zehazki sarturik ez dauden abeltzaintzako bestelako ustiapen intentsiboak edo estentsiboak ere

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0394

Ikus taula osoa

Jarduera: abeltzaintzakoa, esnetarako ardi aziendaren eta esnetarako ahuntz aziendaren ustiapen intentsiboa

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0287

Jarduera: abeltzaintzakoa, esnetarako behi aziendaren ustiapen intentsiboa

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0322

Jarduera: abeltzaintzakoa, haragitarako ardi aziendaren eta ahuntz aziendaren ustiapen intentsiboa, eta hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0453

Jarduera: Nekazari eta abeltzainek eta basogintzako jardueren titularrek egindako bestelako lan eta zerbitzu osagarriak, betiere balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezitik kanpo baldin badaude, eta hegaztiak ez gainerako azienda hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0558

Jarduera: apartzeria araubideko nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, hain zuzen ere gizakiek jateko zereal, lekale eta onddoetatik lortzekoak

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0136

Jarduera: apartzeria araubideko nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, hain zuzen ere mahaiko ardotarako mahatsa, fruitu lehorrak, landare oliodunak, zitrikoak eta olibondoaren produktuak lortzekoak

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0160

Ikus taula osoa

Jarduera: Apartzeria araubideko nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, sustraiak, tuberkuluak, arroza, jatorri-deiturako ardotarako mahatsa, zitrikoak ez diren frutak, baratzezaintza eta beste ataletan zehazki aipatzen ez diren nekazaritzako bestelako produktuak lortzekoak

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0180

Ikus taula osoa

Jarduera: apartzeria araubideko nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, bazka-landareak lortzekoak

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0443

Ikus taula osoa

Jarduera: Apartzeria araubideko nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, mahaiko mahatsa lortzekoak

Sartu beharreko kuotaren indizea

0,0200

Ikus taula osoa

Jarduera: Apartzeria araubideko nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, ehun-landareak eta tabakoa lortzekoak, eta nekazariak, abeltzainak eta basogintzako jardueren titularrek egindako bestelako jarduera osagarriak

Sartu beharreko kuotaren indizea	0,1050
Oharra: Adibide gisara, nekazariak, abeltzainak eta basogintzako jardueren titularrek egindako zerbitzu osagarrietan, honako hauek sartzen dira: landa turismoa, eskulangintza, ehiza, arrantza eta aisialdiko jarduerak, betiere nekazariak edo abeltzainak monitore, gidari edo aditu gisa parte hartzen badu, esaterako txangoak, mendi-ibiliak, ibilbide ekologikoak, etab., landa-etxeetako ostatu zerbitzuak izan ezik.	

Ikus taula osoa

Jarduera: Apartzeria araubideko basogintzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.	
Sartu beharreko kuotaren indizea	0,0525

Ikus taula osoa

Jarduera: Produktu naturalak eraldatu, elaboratu edo manufakturatzea gazta egiteko	
Sartu beharreko kuotaren indizea	0,0156

Ikus taula osoa

Jarduera: Produktu naturalak eraldatu, elaboratu edo manufakturatzea ardoa egiteko	
Sartu beharreko kuotaren indizea	0,0819

Ikus taula osoa

Jarduera: produktu naturalak eraldatu, elaboratu edo manufakturatzea aurrekoak ez diren beste produktu batzuk lortzeko	
Sartu beharreko kuotaren indizea	0,0634

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN ERANSKIN HONETAKO ZEINU, INDIZE EDO MODULUAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

Urteko etekina

1. Jarduera bakoitzari dagokion etekin garbia aterako da biderketa bat eginda, hau da, diru-sarreraren bolumen osoaren (barne direlarik nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziaren ordaina, diru-laguntza arruntak nahiz kapitalekoak, eta ustiategi bakoitzari dagozkion kalte-ordainak) eta horietako bakoitzari dagokion “etekin garbiaren indizearen” artekoa.

Aurreko paragrafoan xedaturikoa gorabehera, baldin eta diru-laguntzak eta kalte-ordainak “etekin garbiaren indize” ezberdinak ezarriak dituen labore edo ustiapen batekin baino gehiagorekin lotzen badira, aipatu diru-laguntzei eta kalte-ordainei aplikatu beharreko indizea 0,23 izanen da.

Nekazaritza Politika Erkidea desakoplatutako laguntza zuzenetan (oinarrizko ordainketa, klimarako eta ingurumenerako onuragarriak diren nekazaritzako jardunbideetarako ordainketa, nekazari gazteendako ordainketa, eta, kasua bada, nekazari txikien araubide erraztuaren ordainketa), ondoko eskala aplikatzearen ondoriozko indizea aplikatuko da, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jardueraren diru-sarrera guztiei buruz (aipatutako NPEko laguntza zuzenak eta gainerako laguntza, diru-laguntza eta kalte-ordainak barne) laguntza horiei dagokien portzentajearen arabera:

–Laguntza zuzen desakoplatuak %50 edo gutxiago badira, 0,23ko indizea aplikatuko da.

–Laguntza zuzen desakoplatuak %50 baino gehiago eta %80 baino gutxiago badira, indizea 0,53 izanen da.

–Laguntza zuzen desakoplatuak %80 edo gehiago badira, 0,80ko indizea aplikatuko da.

2. Indize zuzentzaileak dituzten jardueretan, etekin garbia aterako da biderketa bat eginda, hau da, aurreko 1. atalean zehazturikoaren eta kasuan kasuko indize zuzentzaileen arteko biderketa.

Indize zuzentzaileak bakar-bakarrik aplikatuko zaizkie berariaz horrelakoak ezarriak dituzten jarduerari, eta hurrengo 3. atalean adierazten diren gorabeheren, zenbatekoen, hurrenkeraren eta bateraezintasunaren arabera.

3. Indize zuzentzaileak.

3.1. Nekazaritzako jardueretan besteren ekoizpen-bideak erabiltzea.

Nekazaritzako jarduerak garatzean norberarenak ez diren ekoizpen-bideak soilik erabiltzen direnean, lurra kontuan eduki gabe, apartzeriako eta antzeko kasuetan salbu.

Indizea: 0,75.

3.2. Soldatuko langileak erabiltzea.

Soldatako langileen kostua diru-sarreraren bolumen osoaren portzentajea baino handiagoa bada, aipatzen den indize zuzentzailea aplikatu beharko da.

Ikus taula osoa

PORTZENTAJEA	INDIZEA
%10etik gora	0,90
%20tik gora	0,85
%30etik gora	0,80
%40tik gora	0,75
%49tik gora	0,70

Aurreko 3.1 puntuko indize zuzentzailea aplikatu behar baldin bada, orduan 3.2 puntu honetakoa ezin izanen da aplikatu.

3.3. Errentan utzitako lurretan egindako laborantza.

Laborantza lanak, osorik zein partez, errentako lurretan eginak direnean.

Indizea: 0,80, errentan utzitako lurretako laborantzatik lortutako etekinaren gainean

Aipatu diru-sarrerak zehazterik ez dagoenean, hainbanaketa egingen da, alegia, labore bakoitzari dagozkion errentan harturiko lurrek labore horretarako landutako lur osoaren (jabetzakoaren gehi errentan harturikoaren) arabera duten proportzioa kontuan hartuta.

Indize zuzentzaile hau aplikatuz etekinari egiten zaion murriztapena ezin da izan errentamenduagatik ordaindutako zenbatekoa baino handiagoa.

Indize hori aplikatzeko, subjektu pasiboak kasuan kasuko errenten gaineko atxikipenak egin eta ordaindu beharko ditu, eta zerga araudian ezarritako epeetan eta ereduaren egin beharko du errenten zenbatekoei eta atxikipenei buruzko jakinarazpena.

Herri ondasunen aprobetxamenduaren kasuan, indize zuzentzaile hau aplikatuko da baldin eta subjektu pasiboak jakinarazten baditu eredu eta epe berdinetan aprobetxamendu horien truke ordaindutako zenbatekoak.

3.4. Hirugarrenei erositako pentsuak.

Abeltzaintzako jardueretan, aziendei emandako pentsuek eta hirugarrenei erositako beste elikagai batzuek egiten badute kontsumitutako zenbatekoen 100eko 50 baino gehiago.

Indizea: 0,75, salbu eta haragitarako zerri-aziendaren ustiapen intentsiboan eta hegazti-hazkuntzan. Indize hori 0,95 izanen da aipatu jardueretan, alegia, haragitarako zerri-aziendaren ustiapen intentsiboan eta hegazti-hazkuntzan.

Indize horren ondorioetarako, pentsuen eta beste produktu propio batzuen zenbatekoaren balorazioa egiteko, merkatuan duten balioa erabiliko da.

3.5. Nekazaritza ekologikoa.

Produkzioak betetzen baditu mota honetako ekoizpenaren gaineko kontrola bere gain hartzeko Foru Komunitatean indarra duen legezko araudian ezarritako baldintzak, nekazaritzako produkzio ekologikoari eta nekazaritzako produktuetan eta elikagaietan behar duen adierazpenari buruzko urriaren 22ko 1852/1993 Errege Dekretuarekin bat eta Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91/EE Erregelamenduarekin bat.

Indizea: 0,95.

3.6. Basogintzako jardueri aplikatzeko indizea.

Foru Komunitateko Administrazioak onetsitako baso kudeaketako plan teknikoen, mendien antolamenduaren, plan dasokratikoen edo basoberritze planen arabera kudeaturiko baso-finkak ustatzen badira, betiere Administrazio eskudunak kasu bakoitzean zehazturiko batez besteko ekoizpen epea –kasuan kasuko espeziearen arabera– hogeitazko edo gehiagokoa bada.

Indizea: 0,80.

3.7. Energia elektrikoa erabiltzen duten ureztalurretako laboreak.

Laborantza, osorik edo partez, ureztalurretan egiten bada, betiere zergadunaren ureztatzaileen elkarteak mendekotasun energetikoa duenean eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 102.2 artikulua zerga berezietarako aipatzen duen kudeaketa-bulegoaren lurralde-erregistroan izena emanda badago.

Indizea: 0,80, energia elektrikoa erabiltzen duten ureztalurretako laboreetatik lortutako etekinaren gainean.

Etekina zein den kalkulatzetik ez badago, indizea honela aplikatuko da: labore guztietatik lortutako etekina bider, nekazaritzako ustiategiaren azalera guztiarekin alderatuta, energia elektrikoa erabiltzen duten ureztalurretako labore lurrek osatzen duten portzentajea.

ERANSKIN HONETAKO ZEINU, INDIZE EDO MODULUAK BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

Arau orokorra

1. Araubide berezi hau aplikatzearen ondorioz subjektu pasiboak sartu beharreko kuota kalkulatzeko, bere jardueraren sektore bakoitzari eranskin honen arabera dagozkion kuota guztien batuketa egingen da.
2. Jarduera sektore bakoitzari dagokion kuota aterako da diru-sarreraren bolumen osoaren (diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak eta kalte-ordainak aparte utzita) eta dagokion “sartu beharreko kuotaren indizearen” arteko biderketa eginez.
3. Sartu beharreko kuoten zenbatekoa, aurreko ataletan ezarritakoari jarraikiz kalkulatua, zuzenduko da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legearen 68.5 artikuluan aipatzen diren kuotak gehituz eta/edo kenduz.

Hiru hileko kuotak

4. Ateratzen den kuotaren ordainketa behar diren likidazio-aitorpenen bitartez egingen da, subjektu pasiboak hiruhileko bakoitzaren hurrengo hilabeteko lehen hogeitun egun naturalen barrenean aurkeztu beharko baititu, salbu bigarren eta laugarren hiruhilekoei dagozkienak, horiek, hurrenez hurren, abuztuaren 5era arte eta urtarrilaren 31ra arte aurkezten ahalko baititu.
5. Hiru hilean behin ordaindu beharreko zenbatekoa aterako da epe horretan izan diren diru-sarreraren bolumen osoaren eta dagokion “sartu beharreko kuotaren indizearen” arteko biderketa eginez.

Apartzeria kontzeptua

Hauxe jotzen da apartzeriatzat: halako kontratu mota bat zeinaren bidez landa-finka baten titularrak aldi baterako lagatzen baititu finkaren edo hango aprobetxamenduren baten erabilera eta luperketa, eta, horrekin batera, aziendaren, makineriaren eta zirkulazioko kapitalaren guztizko balioaren %25 edo gehiago jartzen du eta lagapen-hartzailearekin adosten du produktuak zati alikuotatan banatuko dituztela bakoitzak egindako ekarpenaren arabera.